IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSASUN SAILA

4708

IRAGARKIA, Ermua farmazia-eskualdean (Bizkaia) farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinaraztekoa.

Farmaziak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuak 4. artikuluan xedatutakoa betez, Bizkaiko Ermua farmazia-eskualdeko farmazia baten % 100 eskualdatzeko proposamena jakinarazten da.

Interesa duten farmazialariek farmazia-bulegoari, prezioari eta gainerako xehetasunei buruzko informazioa eskuratu dezakete espedientean, honako helbide hauetan:

– Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza, Olagibel kalea 38, Vitoria-Gasteiz.

– Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia / San Sebastián.

– Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza, Errekalde zumarkalea 39, Bilbao.

Farmazia eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea, bi hilabetekoa, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen da.

Farmazia eskuratzeko eskabideek 274,81 euroko tasa ezarria dute.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 26a.

(Haren postua hutsik egoteagatik, Farmaziako zuzendariaren ordez, hala aurreikusten baitu xedapen gehigarriaren b) apartatuan urriaren 29ko 319/2024 Dekretuak, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak).

Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendaria,
JAIME RUIZ DE EGUINO LANGARICA.